

Egun on,

Gaurkoan hemen bildu garen mugimendu feministako eta herri mugimenduko eragileok ondorengo adierazi nahiko genuke:

Urte luzez ari dira mugimedu feminista eta herri mugimenduak eraso sexistarik gabeko eta guztiontzako jai parekideen alde lanean, bakoitza bere eremutik eta ditugun berezitasunak errespetatuz.

Hainbat sektore eta batez ere komunikabide batzuek nahita egindako irakurketaz gain, eraso sexisten aurkako borroka ez zen 2016ko uztailaren 7an hasi, eta gau hartakoa, zotixarrez, ez zen eta ez da izango ere biziko dugun eraso bakarra. Salaketa horren ondorengo prozesu judizial, erabaki judizial, sententzia eta azken gertakariak sortutako ezinegon eta amorrua ulertzen dugu, baina honek ezin du gure borroka instrumentalizatzeko edo emakumeon kontrako indarkeriaren edonolako analisiak egiteko aitzakia izan.

Indarkeria matxistari aurre egiteko prebentzioa, heziketa eta beste giza-harremetan batzuk eraikitzea beharrezkoa da. Hala ere, egungo marko juridikoaren barnean eta gure helburua beste eredu ez punitiboetara transitatzea delarik, estatutuak erasotzaileak ez babesteko, erasoak bere izenez deitzeko eta erasotutako emakumea zein beste guztiok babesteko exijitzen dugu.

Hemen gauden eragileok jai giroko eraso sexisten kontrako borrokan hamarkadak daramatzagu lanean. Guk ez dugu titularretan oinarritutako lanik egiten eta urtetik urtera Iruñeko herritarrek emandako erantzuna ez da kasualitatea izan. Mugimendu feminista eta herri mugimenduak komunean egindako lanaren fruitua da, 2014tik aurrera instituzioek ere babestutakoa.

Urtetik urtera sanferminak emakumeondako ahalik eta espazio seguruenak eta eraso sexistarik gabekoak izan daitezen gogor lan egiten dugu, kanpaina ezberdinak martxaz jarritz, protokoloak berrituz, gure artean bildu eta erabakiak hartuz, baina batez ere, eta guretzat hau da garrantzitsuena, gure artean konpartituz, kontrastatuz, akordioetara iritsiz eta gure erabakiak era kolektiboan hartuz.

Sanferminak, nazioarteko dimentsioa duten jaiak izateaz gain, iruindar guztion jaiak dira, hiri honetan bizi eta gure bizi proiektuak ditugunonak, eta hórrela izaten jarraitu behar duela uste dugu.

Azken asteontan eta sare sozialetan batez ere, zalantzazko jatorria duten hainbat inizatibek berri izan dugu, asko anonimoak direnak eta beste asko emakumeak ahalduzko ustezko helburuarekin eraso sexisten kontrako borrokan nazioarteko eredu den gure hirira erasotzen dutenak. Iniziatiba hauetako asko gure hirikoa ez diren eragile eta kanpoko agenteek sustatu dituzte inolako eztabaida, konsenso, kontraste eta helburu finkorik gabe. Deialdi guzti hauek, hemengoek egiten dugun lana gutxietsi eta negatiboki eragiten diete askoren artean hartutako erabaki eta bertako dinamikei, haien helburua hau ez den arren.

Honi, egiten diren dinamikak ikusirik gure hiriarekiko eta festen idiosinkrasiarekiko ezjakintasuna gehitu behar zaie, eta gainera eraso sexisten borrokan kalterakoak izan daitezkeela uste dugu. Beraz, Iruñeko hainbat eta hainbat kolektiboren lana kaltetu eta baldintzatzen duen kanpo esku-sartzea dela deritzogu.

Guzti honengatik, ardura kolektibo eta politikoa eskatu nahi dugu. Iniziatibak ongi etorriak izaten dira, beti ere behar bezalako komunikazio bideak erabiliz, Iruñeko mugimenduekin kontrastatuz eta gure egoera espezifikora egokituz.

Gure deialdiak zehaztasun handiz egindakoak dira, kanpaina orohar batzuen barnean daude eta epe luzerako helburuak dituzte.

Beraz, ardura kolektiborako deia egin nahi dugu. Erasorik gabeko jai edota erasoak jasandako emakumeon inolako laguntzarik ematen ez dioten egoeraren araberoko dinamika oportunistak asko dago. 2016tik errepikatzeaz nekatu ez garenaz, kasu bakarrean zentratzeak gainontzekoak ikusezin bihurtzen ditu, garrantzia kenduz eta batez ere errealitatearekin zerikusirik ez duten elementuei garrantzia emanez.

Eraso guztiak dira garrantzitsuak, erasotuak izan diren emakume guztiok gure babesa behar dute eta erasoek, intentsitate altu edo baxukoak izanda ere, inoiz ez dute justifikaziorik.

Bukatzeko, eraso sexistarik gabeko jaiak lortzeko lanean jarraituko dugula esan nahi dugu, Autodefentsa Feministara eta indarkeria sexistaren aurka gure artean antolatu eta artikulatzera dei egiten dugu.

Hemendik, jaiak hasteko 3 egun falta direnean, mugimendu feminista eta herri mugimenduak emakume\* guztiei jaiak goza ditzaten dei egiten die. Hauek gure jaiak dira, arauak guk jartzen ditugu eta gure espazioa exijitu behar dugu, plazak hartuz, barre eginez, dantzatzuz, antolaketan parte hartuz, kaleak eta eszenatokiak hartuz. Azken finean, guk nahi dugun moduan jaiak gozatuz.

Prentsaurreko honetan mugimendu feministako Bilgune Feminista, Emakume Internazionalistak, FARRUKAS, Indarkeria Sexistaren Kontrako Emakumeon Plataforma eta Andrea-Lunes lila.

Herri mugimenduko Gora Iruñea! eta Iruñeko Peñen Federazioako kideok gaudete.

Egun on,

Hoy diferentes agentes sociales, pertenecientes tanto al movimiento feminista como al movimiento popular queremos dejar de manifiesto lo siguiente:

Desde hace muchos años, el movimiento feminista de manera coordinada con el movimiento popular, cada cual desde su ámbito y respetando, como debe de ser, nuestras particularidades hemos trabajado por unas fiestas igualitarias, libres de cualquier agresión sexista y en las que todas y todos tengamos cabida.

A pesar de la lectura intencionada de algunos sectores y principalmente de algunos medios de comunicación, la lucha contra las agresiones sexistas no empezó el 7 de julio de 2016 ni la de aquella madrugada fue, ni será, la única que hemos vivido.

Entendemos la indignación por el proceso judicial iniciado tras aquella denuncia, las decisiones judiciales, la propia sentencia y los últimos sucesos de los que hemos tenido constancia pero esto no puede ser excusa para que nuestra lucha sea instrumentalizada ni para hacer análisis simplistas de lo que es la violencia contra las mujeres.

La violencia machista pasa por la prevención, la educación y la construcción de otro tipo de relaciones sociales. Sin embargo, dentro del marco jurídico actual, aunque nuestro objetivo final sea transitar hacia otros modelos no punitivos, exigimos que el estado no ampare a los agresores, proporcionalidad, que a las agresiones se las llame por su nombre y que se garantice la seguridad de la mujer agredida y del resto de mujeres.

Quienes estamos hoy aquí llevamos décadas de lucha contra las agresiones sexistas en el ámbito festivo. Nosotras no trabajamos a golpe de titular y la respuesta ejemplar que la ciudadanía de Iruñea ha dado, año tras año, a las agresiones sexistas, no ha sido casual. Es el fruto de un trabajo constante promovido por el del movimiento feminista, acompañado por el movimiento popular y desde 2014 respaldado también por las instituciones.

Año tras año trabajamos duramente para que los Sanfermines sean un espacio lo más seguro posible para las mujeres, libres de agresiones, poniendo en marcha campañas, renovando protocolos, reuniéndonos y tomando decisiones pero sobre todo, y esto lo más importante, compartiendo y acordando entre todas y todos, contrastando y pensando de manera colectiva nuestras decisiones.

Los sanfermines son unas fiestas de dimensión internacional pero por encima de todo son las fiestas de quienes vivimos y tenemos nuestro proyecto vital en esta ciudad y así creemos debe de seguir siendo.

Durante las últimas semanas fundamentalmente a través de RRSS han aparecido diferentes iniciativas de dudosa procedencia, muchas anónimas y otras que con la supuesta intención de empoderar a las mujeres atacan a una ciudad que ha sido y es ejemplo internacional de la lucha contra las agresiones sexistas. Unas iniciativas que en muchos casos están promocionadas por agentes externos a nuestra ciudad y a los colectivos que participan en la fiesta, sin debate, sin consenso, sin contraste alguno y sin un objetivo claro. Estos llamamientos, aunque no sea su intención, ningunean el trabajo que estamos realizando desde aquí e influyen negativamente en las dinámicas locales que ya están consensuadas y previstas realizar este año.

A esto hay que sumarle que por el tipo de iniciativas que se proponen es evidente que se realizan desde el desconocimiento tanto del trabajo que se realiza en nuestra ciudad, como en sus fiestas y de la idiosincrasia de las mismas y que además entendemos que pueden ser poco afortunadas y contraproducentes en la lucha contra las agresiones sexistas. Entendemos por lo tanto que son una injerencia externa que condiciona y debilita el trabajo de tantos y tantos colectivos de Iruñea.

Por todo esto, desde aquí queremos pedir responsabilidad política y colectiva. Las iniciativas son bienvenidas, pero siempre siguiendo los cauces de comunicación necesarios, contrastándolas con los movimientos de Iruñea y adecuándolas a nuestra situación específica. Nuestras convocatorias han sido pensadas minuciosamente, están enmarcadas en campañas globales y tienen unos objetivos a largo plazo.

Queremos hacer por lo tanto un llamamiento a la responsabilidad y la altura de miras. Hay dinámicas coyunturales y muy oportunistas que en poco o en nada ayudan a la lucha por unas fiestas libres de agresiones y a las mujeres que sufren o han sufrido agresiones. Como no nos hemos cansado de repetir desde 2016, centrarse en un único caso invisibiliza el resto de agresiones, les quita importancia y sobre todo pone el foco en elementos que poco tienen que ver con la realidad. Todas las agresiones son importantes, todas las mujeres que sufren o han sufrido agresiones necesitan de nuestra solidaridad y ninguna de las agresiones ya sean de baja o de alta intensidad tienen justificación alguna.

Para terminar nos reafirmamos en nuestro compromiso a seguir trabajando por unas fiestas libres de agresiones sexistas. Hacemos un llamamiento a la auto-defensa feminista y a seguir articulándonos y organizándonos para luchar contra la violencia sexista. Y desde aquí, a 3 días del 6 de julio tanto el movimiento feminista como el movimiento popular de Iruñea queremos hacer un llamamiento a todas las mujeres\* a disfrutar de los sanfermines con nosotras. Estas son nuestras fiestas, nosotras ponemos las reglas y tenemos que exigir nuestro espacio en ellas: Tomando las plazas, riendo, bailando, organizándolas, tomando las calles, los escenarios... En definitiva disfrutando y gozando de las fiestas como nos dé la gana.

En esta rueda de prensa estamos representantes de colectivos feministas, Bilgune Feminista, Emakume Internazionalistak, FARRUKAS, la Plataforma de Mujeres contra la Violencia Sexista y Andrea-Lunes lila.

Y de colectivos del movimiento popular, Gora Iruñea! y la Federación de Peñas de Iruñea.